

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

#### **Armiñon herrian kokatutako 1. poligonoaren 1033-B zenbakigarren lursailean kokatutako makaldia moztea**

Espediente-zenbakia: AO-A-2019-0025

Eskatzailea: Arabako Foru Aldundia

Armiñongo Administrazio Batzarrak Arabako Foru Aldundiarekin, 287. zenbakiarekin, hitzarmendutako makaldia moztuko da, zorriek arboladia kaltetu dutelako. Zadorra ibaiaren ezkerreko ertzean egingo da mozketa, 0,28 ha.tako azaleran.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hiru egun baliouduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Armiñongo Alkatetzan, edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 14a

*Mediterraneoko Arroen bulegoburua*  
**JAVIER AGIRRE ORCAJO**